

Martxoaren 23ko 35/1999 FORU DEKRETUA, adingabekoen babes, garapen pertsonala eta gizarteratzea bultzatzeko diru laguntzak eta gizarte arriskuan dauden pertsonentzako edo familientzako diru laguntzak arautzen dituen.¹²

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren azaroaren 11ko 21/1987 legearen indarrez adingabekoen babes arloan gureganaturako eskumenak erabiltzerakoan, eta utarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoak, adingabekoen babes juridikoari buruzkoak, agindutakoaren arabera, Gizartekintza Departamentuak ikusi du komenigarria dela adingabekoen babesari, garapen pertsonalari eta gizarteratzeari zuzendurik dauden eta departamentuak laguntzen dituen jardueretarako diru laguntzen zenbateko batzuk eguneratzea.

1

Ekainaren 22ko 53/1993 Foru Dekretua, adingabekoen babes, garapen pertsonala eta gizarteratzea bultzatzeko diru laguntzak eta gizarte arriskuan dauden pertsonentzako edo familiartekoentzako diru laguntzak arautzeko, indarrean zegoenean izandako esperientzia eta adingabeak familietan hartzeko programaren garapena kontuan hartuta, bidezkoa da horren barruko kontzeptuak eta zenbatekoak handitzea.

Bestalde, beharrezkoa da oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen, sasoiko gizarte larritasuneko egoeran egonez gero arazoak arintzearen, horretarako zeuden diru laguntzak ematen jarraitzea, eskasia horrek gizarte marginazioko egoerak ekartzen baititu, are larriagoak egungo krisi ekonomikoa eta langabezia ditugun uneotan.

Horregatik, Gizartekintza Departamentuan ezarritako programak betetzearen, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua.

Gizartekintza Departamentuko «Gizarte Zerbitzu Espezializatuak» izeneko 05 programaren barruan eta «Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Sare Publikoa» izeneko 08 programaren barruan, ondoren aipatuko diren prestazioak ezartzen dira:

- a) Adingabeak familietan hartzea bultzatzeko diru laguntzak.
- b) Diru laguntza bereziak 18 urtetik gorako gazteentzat.
- c) Adingabeak familia eta egoitzetan hartzeko programen diru laguntza osagarriak.

1 Martxoaren 23ko 35/1999 Foru Dekretua 1999ko apirilaren 7an argitaratu zen. Araua apirilaren 20ko 43/1999 Foru Dekretuak zuzendu zuen (apirilaren 28ko 77 zk.ko GAO) eta azkenik osorik argitaratu zen berriro, apirilaren 20ko 43/1999 Foru Dekretuak egindako zuzenketekin (apirilaren 29ko 78 zk.ko GAO).

2 Ikusi, ekainaren 19ko 31/2012ko Foru Dekretua, Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntza ezartzen duenak, bere bigarren xedapen iragankorrean dioena (ekainaren 27ko 122 zk.ko GAO).

d) Familietan esku hatzeko programen diru laguntza osagarriak.

e) Gizarte arriskuan dauden pertsonentzako edo familiartekoentzako diru laguntzak.

2. artikulua.

1. artikuluan aipatutako prestazioak jasotzeko eskubidea edukitzeko, ondoren azaltzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Adingabeak familietan hartzea bultzatzeko diru laguntzak: famili harreraren titular izatea, Kode Zibilak 173. eta 173. bis artikuluan agindutakoaren arabera formalizatuta.

b) Ayudas especiales a jóvenes mayores de 18 años que hayan dependido de las instituciones públicas o privadas competentes en la atención a menores; o que hayan permanecido en el acogimiento familiar previsto en los artículos 173, 173 bis y concordantes del Código Civil los dos años anteriores a la mayoría de edad; o que, sin haber cumplido 23 años, hayan participado durante al menos los 6 meses anteriores a la solicitud en un programa de acompañamiento social autorizado por el Departamento de Política Social; o que hayan permanecido en un recurso de inserción social concertado con el Departamento de Política Social realizando un proceso de inserción en alojamiento durante un periodo superior a 6 meses. Todas las personas que puedan acogerse a estas ayudas especiales deberán disponer de informe de evolución favorable emitido por las personas responsables del programa o servicio que las atiende, informe que deberá ser validado por el personal técnico del Servicio de Inserción Social, Atención a Mujeres Víctimas de violencia machista y Urgencias sociales del Departamento de Política Social; además, deberán aceptar un programa individualizado que justifique la necesidad de la ayuda y su periodo de duración. Quedan expresamente excluidos de acceder a estas ayudas los y las jóvenes que puedan beneficiarse de la renta de garantía de ingresos o que dispongan de recursos económicos por importe superior a estas ayudas.³

c) Adingabeak familietan eta egoitzetan hartzeko programen diru laguntza osagarriak: familia harreraren titular izatea, Kode Zibilak 173. eta 173. bis artikuluetan agindutakoaren arabera formalizatuta, edota familiaratze gaitan lankide izateko behar bezala gaiturik dagoen erakunde baten izenean jardutea eta gauzatu nahi den jarduera azaltzen duen memoria eta aurrekontua aurkeztea.

d) Familietan esku hartzeko programen diru laguntza osagarriak: Gizartekintza Departamentuak familietan esku hartzeko garatzen dituen programetan sartuta egotea.

e) Gizarte arriskuan dauden pertsonentzako edo familientzako diru laguntzak:

- Adinez nagusia izatea.

- Gipuzkoako lurralde historikoko edozein herritan bizi izatea.

- Oinarrizko gastuei aurre egiteko diru sarrera nahikorik ez edukitzea (diru sarera horietan edozein motatakoak sartuta)edo, ondasun higigarri nahiz higiezinen jabe edo usufruktudun izanda ere, ondasun horien ezaugarriak, balorazioa edo saltzeko nahiz ustiatzeko edozein aukera kontuan hartuta, nabaria izatea oinarrizko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutela.

- Eskubiderik ez izatea maiatzaren 12/1998 Legeak, gizartean inor baztertzearen kontrako neurriei buruzkoak, arautzen dituen gutxieneko diru sarrerak ez gizarte larrialdietarako diru laguntzak eskuratzeko aukerarik.

3. artikulua.

³ 2 artikulua b) atala aldatu egin du uztailaren ekainaren 25eko 22/2013 Foru Dekretuak, martxoaren 23ko 35/1999 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere artikulua bakarraren bidez (uztailaren 1eko 124 zk.ko GAO).

Prestazioak zenbateko hauen arabera emango dira:

A) Adingabeak familietan hartzea bultzatzeko diru laguntzetan lau mota ezberdin daude:⁴

1. Familian hartzea: 600,00 euro hileko, adingabe eta famili unitate bakoitzeko.
2. Adingabe ezgaituak familian hartzea: 718,60 euro hileko, adingabe ezgaitu bakoitzeko eta famili unitate bakoitzeko.
3. Familian aparteko arretaz artesa (arreta handia edo familia bizitza normal batean ohiz kanpoko den arreta behar duten adingabeak direnean, hau da, normaltasunez gizarteratzea eragozten duten portaera arazoak edo arreta berezia eskaintzea eskatzen duten beharrianak dituzten adingabe eta familia unitate bakoitzeko direnean: 1.057,45 euro/hileko adingabe bakoitzeko eta familia unitate bakoitzeko
4. Familian aparteko arretaz artesa (arreta handia edo familia bizitza normal batean ohiz kanpoko den arreta behar duten adingabeak direnean, hau da, normaltasunez gizarteratzea eragozten duten portaera arazoak edo arreta berezia eskaintzea eskatzen duten beharrianak dituzten adingabe eta familia unitate bakoitzeko direnean: 1.238,60 euro/hileko adingabe bakoitzeko eta familia unitate bakoitzeko.

B) Laguntza bereziak 18 urtetik gorako gazteentzat. Adin nagusitasunera iristen diren gazteen gizarteratze prozesua errazteko diru laguntza hauek kontzeptu eta zenbateko desberdinetako ondorengo kasuok hartzen dituzte kontuan.⁵

1. Harrera familian bizi diren 18 urtetik gorako gazteentzako laguntzak: Familia hartzaileak ordura arte jaso duen zenbatekoa luzatzea eska dezake gazteak, laguntzaren beharra eta iraunaldia zuzitzen dituen banakako programa bat egiteko konpromisoa hartuta. Laguntzaren gehieneko zenbatekoa adin nagusitasunera iritsi baino lehen jasotzen zuen bera izango da. Laguntza hau jaso ahal izango du gazteak diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko baldintzak betetzen ez dituen bitartean.
2. Familia naturalaren edo harrera familiaren etxean bizi ez diren eta 2. artikuluko b) atalean sartuta dauden 18 urtetik gorako gainerako gazteentzako laguntzak:

2.a) Egoitza eta mantenu-pentsioa: Hileko 543,27 euro gehienez.

Laguntza hau benetan jasotzea bateraezina da gizarteratze baliabide batean egotearekin; beraz, benetan jaso ahal izateko, baliabidetik irteteko eska daiteke.

2.b) Lanbide heziketako, prestakuntza okupazionalerako edo unibertsitate mailako ikasketak egiteko banakako programak garatzeko laguntzak, eta gizarteratzeko eta lana bilatzeko banakako programetarako: Hileko 313,43 euro gehienez.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, bi kontzeptuak batuta -2.a) eta 2.b)-, ez da inola ere hileko 700 eurokoa baino handiagoa izango.»

C) artikuluko c), d) eta e) letretan aurreikusitako diru laguntzen zenbatekoak Gizartekintzako zuzendari nagusiek erabakiko dituzte, nork bere gain dituen arloen arabera, honako hauek kontutan hartuta: programaturako jardueraren kostua, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek egindako ebaluazioa 05 programako diru laguntzak direnean, Departamentuko zerbitzu teknikoan irizpena eta aurrekontuetako baliabideak.

⁴ 3 artikuluko A) atala aldatu egin du, 2008ko urtarrilaren 1etik ondorioak dituela, apirilaren 23ko 603/2008 Foru Aginduak, martxoaren 23ko 35/1999ko zenbatekoak eguneratzen dituenak (maiatzaren 6ko 85 zk.ko GAO).

⁵ 3 artikuluko B) atala aldatu egin du uztailaren ekainaren 25eko 22/2013 Foru Dekretuak, martxoaren 23ko 35/1999 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere artikuluko bakarraren bidez (uztailaren 1eko 124 zk.ko GAO).

4. artikulua.

Adingabeak familietan eta egoitzetan hartzeko programen eta familietan esku hartzeko programen laguntza osagarrietan sartuta dagoen laguntza psikologikoaren zerbitzua Gizartekintza Departamentuak horretarako agindutako kontratazio prozeduraren bitartez eskainiko da.

5. artikulua.

Diru laguntza eskaerak Gizartekintza Departamentuaren Erregistroan (Zarategi pasealekua, 99. Donostia 20015) aurkeztu behar dira eta honako hauek dute eskaera aurkezteko aukera:

- Interesatuak berek.
- Haien legezko ordezkariak.
- Haien ordezkatzeko dituzten erakundeak.

Eskaerak bideratu, berriz, honako hauek baliatuta bidera daitezke:

- Udalen oinarriko gizarte zerbitzuak.
- Gobernu kanpoko erakundeak.
- Gizarte zerbitzuen alorrean eta Gipuzkoako lurralde historikoan diharduten instituzioak eta entitateak.

6. artikulua.

1. Laguntza eskaerak ondoren aipatzen den eran ebatziko dira:

a) Adingabeak familietan hartzea bultzeko laguntzak.

b) 18 urtetik gorako gazteentzako laguntza bereziak.

Gai horretan eskua duen Zuzendaritza Nagusiko titularrak emango du aldeko ebazpena, bigarren artikuluko a) eta b) letretan eskatutako beharkizunak betetzen badituzte. c) Adingabeak egoitzetan eta familietan hartzeko programen laguntza osagarriak.

d) Esku hartzeko programen laguntza osagarriak.

Eskaera horiek eskua duen Zuzendaritza Nagusiko titularrak ebatziko ditu, aurretik Gizartekintza Departamentuak laguntza beharri buruz aldeko irizpena eman badu gai horretako espezialista batek hala baloratuta ondoren.

e) Gizarte arriskuan dauden pertsona edo familiartekoentzako laguntzak.

Bidezkoak diren irizpenak eta azterketak egin ondoren, eskua duen Zuzendaritza Nagusiko titularrak ebatziko ditu laguntza eskaera horiek.

2. Eskua duen Zuzendaritza Nagusiko titularrak emandako ebazpenetan errespetatu egingo da, beti ere, foru dekretu honen bigarren xedapen gehigarriak Aurrekontuari dagokionez aipatzen duen muga. Foru dekretu honetan baimendutako zenbatekoa gehitu ahal izango du foru aginduaz Gizartekintza Departamentuko foru diputatuak, alde aurretik kreditu transferentziari buruzko araudiak ezarritakoaren arabera behar den kreditu aldakea eginda.

3. Laguntza eskaera Gizartekintza Departamentuaren erregistroan sartu denetik hiru hilabete igaro eta hari buruzko ebazpenik eman ez bada eskaera ezetsizat joko da.

7. artikulua.

Gizartekintza Departamentuak eskatutako nahi adina argibide eman behar diote departamentuari foru dekretu honetan araututako diru laguntzen onuradunek, eta dirua ondo erabiltzen dutela zuritu behar dute, gastatutako diru kopuru osoaren ordainagiriak aurkeztuz, adingabeakoak familietan hartzeko programaren laguntzen kasuan izan ezik, horien gastua zuritutzak joko baita Departamentuko zerbitzu teknikoek urtero egin behar duten txostenean hala irizten badiote.

8. artikulua.

Eman diren laguntzak beste xede batzuetarako erabiltzen direnean, Departamentuko zuzendari nagusiek laguntza horien ebazpenak erreboka ditzakete, kasuan kasuko onuradunari entzun ondoren eta ebazpen arrazoituaren bidez, eta horelakoetan onuraduna jaso duen zenbatekoak itzultzera beharturik egongo da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu honen babesean emandako diru laguntzak ez dira kontutan hartuko gizarteratzeko gutxieneko diru sarrera edo kotizatu gabeko pentsioa emateko garaian.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Foru dekretu honetan aurreikusitako diru laguntzetarako urtez urte izango diren diru zuzkidurak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontuak Onartzeko Foru Arauak jasotakoak izango dira.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizartekintza Departamentuko foru diputatuari baimena ematen zaio 3. artikuluko A) eta B) letretan aipatzen diren laguntzen zenbatekoak urtez urte ezar ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu honek araututako diru laguntzek Aurrekontuan ukitzen duten partida bakoitzaren zuzkiduraren arabera, 1999. urterako gehienez ere 128.350.000 pta.-ko zenbatekoa (771.399,04 euro) jartzen da, honela sailkatuta:

1. Foru dekretu honen a), b), c) eta d) letretan jasotzen diren laguntzak, Aurrekontuko ondorengo 7 partiden kargura:
 - 0820.070.4800001 partida (118.858.000 pta./714.350,97 euro)
 - 0820.070.4800002 partida (3.360.000 pta./20.194,01 euro)
2. Gizarte arriskuan dauden pertsonentzako edo familiartekoentzako diru laguntzak, 0810.050.4800001 partidaren gain: 6.132.000 pta. (36.854,06 euro).

INDARGABETZEKO XEDAPENA.

Indargabetu egiten dira ekainaren 22ko 53/1993 Foru Dekretua eta otsailaren 18ko 10/1997 Foru Dekretua, bai maila bereko edo beheagoko gainerako xedapenak ere foru dekretu honen aurka dauden zatietan.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera sartuko da indarrean.